Su larva se alimenta preferentemente de viejos troncos de Fagus, pero también ha sido citada de otras frondosas.

Su ciclo biológico dura 2 ó 3 años.

A los adultos les gusta estar al sol sobre la corteza de las hayas. Raramente vuelan si no es para pasar de un árbol a otro.


Es muy escasa en Gipuzkoa.

COLEOPTERA

CERAMBYCIDAE

Cerambyx cerdo

Linnaeus, 1758



Neurria: 25-62 mm.

Helduak ekainetik irailera ateratzen dira.

Gipuzkoan dugun zerانبizido handienetakoa da. Kolorez beltz gorrixka, elitroen muturrean argiagoa.

Larbak haritzetan bizi ohi dira nagusiki, baina beste zuhaitz batzuetan ere aurkitu izan dituzte. Urte batzuk igarotzen dituzte garatzen.

Helduek ilunabarretan zuhaitz batetek bestera joateko modu ikusgarri batean egiten dute hegan. Zuhaitz azl gainean, oinez, ere ikusi daitezke.

Gipuzkoan oso urria da.

Tamaño: 25-62 mm.

El adulto aparece de de junio a septiembre.

Es uno de los cerambycidos más grandes que tenemos en Gipuzkoa. Su coloración es negro rojiza, más clara hacia el ápice de los élitros.

Las larvas viven generalmente sobre roble pero también han sido citadas sobre otros árboles. Tardan varios años en desarrollarse.

Los adultos vuelan espectacularmente al atardecer, desplazándose de un árbol a otro. También se les ve caminando sobre la corteza de los robles.

Es muy escasa en Gipuzkoa.

GIPUZKOAKO INTSEKTUAK - INSECTOS DE GIPUZKOA



COLEOPTERA

CHRYSOMELIDAE

Chrysolina lucida

(Olivier, 1807)

Neurria: 8-11 mm.

Helduak udaberritik udazkenera agertzen dira.

Buru txikia eta pronotoan sartua. Begi handiak eta antena luze samarrak. Pronoto beltza, orban zabalez ondo nabari diren bazterrekin. Hankak kolore berdinekoak ditu. Elitro globuloso eta obalak, gorrantzak, mateak eta puntuazio fin batekin.

Gipuzkoan oso urria da.

Tamaño: 8-11 mm.

Aparece entre primavera y otoño.

Cabeza pequeña y encajada en el pronoto. Ojos grandes y antenas relativamente largas. Pronoto de color negro con los bordes laterales bien marcados con puntos gruesos. Las patas también son del mismo color. Élitros globulosos con forma oval y de color rojizo mate con una puntuación fina.

Es muy escasa en Gipuzkoa.



COLEOPTERA

CHRYSOMELIDAE

Chrysolina herbacea

(Duftschmid, 1825)

Neurria: 8-11 mm.

Helduak udaberritik udazkenera agertzen dira.

Oboide itzurakoa. Berde metalikoa, disdira urdinska eta urekolorekoekin. Buru txikia eta pronotoan sartua. Begi handiak eta antena luze samarrak. Elitro obal eta globulosoak. Elitroen kolore berdineko hankak.

Krisomela hau Mentha generoko ezpandinunetan bizi dela bakarrik esan daiteke.

Gipuzkoan oso urria da.

Tamaño: 8-11 mm.

Aparece de primavera a otoño.

Forma ovoide. Coloración verde metálico, con brillos dorados o azulados. Cabeza pequeña y encajada en el pronoto. Ojos grandes y antenas relativamente largas. Élitros de forma oval y globulosos. Patas del mismo color que los élitros.

Se puede decir que esta crisomela vive exclusivamente sobre labiadas del género Mentha.

Es muy escasa en Gipuzkoa.

ODONATA

AESHNIDAE

Aeshna cyanea

(Müller, 1764)



Neurria: 90-100 mm.

Helduak ekaina eta urria artean agertzen dira. Arraren sabelaldea orban berdeak eta urdinak dituen kolore ilunekoa da. Ermeetan arre iluna orban berdeekin.

Larbak ur geldia dagoen lekuetan bizi ohi dira, urmael txikietatik hasi eta korronte motela duten erreketan ere aurki daitezke.

Helduek urondoetatik alde egiten dute jan bila joaterakoan. Leku garbietan eta leku basotsuetako bideetan ikus daitezke.

Ziklo biologikoak urte bat edo bi iraun dezake. Gipuzkoan urria da.

Tamaño: 90-100 mm.

Aparece de junio a octubre.

El abdomen del macho es muy oscuro con manchas verdes y azules. En la hembra es pardo oscuro con manchas verdes.

Las larvas viven en las acumulaciones de agua estancada, desde la más pequeña charca, hasta arroyos de corriente lenta.

Los adultos en busca de caza, se alejan frecuentemente de los medios acuáticos. Se les ve en los claros y caminos de las zonas boscosas, también cerca de zonas habitadas.

Su ciclo biológico puede durar 1 ó 2 años.

Es escasa en Gipuzkoa.

ODONATA

CORDULEGASTERIDAE

*Cordulegaster annulatus
immaculifrons*

Selys y Hagen, 1850



Neurria: 90-100 mm.

Helduak maiatza eta iraila artean agertzen dira.

Nerbioak primeran erakusten dituzten hego gardenak dituzte.

Emeek, ibai eta erreka gainetan hegan doazela, ezten baten bidez arrautzak banaka-banaka uretan jartzen dituzte.

Larbak ur azpian bizi ohi dira 3 edo 4 urte, hauek igaro ondoren, leku honetatik atera, landare batera igo eta bere barrutik heldua aterako da.

Gipuzkoan oso urria da.

Tamaño: 90-100 mm.

Aparece entre mayo y septiembre.

Tiene las alas transparentes en las que se distinguen perfectamente los nervios.

Las hembras van volando encima de los arroyos y ríos depositando los huevos uno a uno dentro del agua mediante un largo aguijón.

Las larvas viven en el fondo del agua y su desarrollo dura 3 ó 4 años, al cabo de los cuales saldrán de este medio, treparán a una planta y de su interior saldrá el insecto adulto.

Es muy escasa en Gipuzkoa.

GIPUZKOAKO INTSEKTUAK - INSECTOS DE GIPUZKOA



Neurria: 65-70 mm.

Helduak ekainetik irailera agertzen dira.


Gorputzaren kolore nagusia horia eta beltza. Hego gardenak.

Larbak nahiko zorrotzak dira eta ibai txikietako edo erreketako ur bizi, garbi eta oxigenatueta bizi dira.

Helduek, uretatik urrundu daitezkeen arren, hondarretan edo ertzeko legarretan pausatzea gustoko dute.

3 urtetik 5 urtera iraun dezake beren ziklo biologikoak.

Gipuzkoan oso urria da.



ODONATA

GOMPHIDAE

Onychogomphus uncatus

(Charpentier, 1840)

Tamaño: 65-70 mm.

Aparece entre junio y septiembre.


Coloración general del cuerpo negra y amarilla. Las alas transparentes.

Las larvas son bastante exigentes y habitan las aguas rápidas, claras y bien oxigenadas de arroyos y pequeños ríos.

A los adultos, aunque pueden alejarse bastante de las aguas, les gusta estar posados en las arenas o las gravas de la orilla.

Su ciclo biológico dura de 3 a 5 años.

Es muy escasa en Gipuzkoa.



Neurria: 60-80 mm.

Helduak maiatzetik irailera agertzen dira.

Arrak hego urdin-bioleta ilun disdiratsuak eta gorputz berde metalikoa. Emeek aldiz, hego gardenak eta gorputz berde disdiratsua dute.

Arrak lurraldekoak dira, eta beren ingurua uretik urbil dagoen landareren baten gainean jarriarik zaintzen dute. Hortik hegaldi motzak egiten dituzte, bai intsektu txikiak harrapatzeko bai beren lurraldera urbiltzen diren beste arrak handik bidaltzeko.

Bi urteko ziklo biologikoa dute.

Gipuzkoan oso urria da.



ODONATA

CALOPTERYGIDAE

Calopteryx virgo

(Linnaeus, 1758)

Tamaño: 60-80 mm.

Aparece de mayo a septiembre.

El macho tiene las alas de color azul-violeta oscuro brillante y el cuerpo de color verde metálico. Las alas de la hembras son de color pardo y su cuerpo es verde brillante.

Los machos son territoriales y vigilan su zona posados en alguna planta cercana al agua. Desde allí realizan vuelos para atrapar pequeños insectos o para expulsar a otros machos que se acercan a su territorio.

Su ciclo biológico dura dos años.

Es muy escasa en Gipuzkoa.

DENA EGITEKE DAGO QUEDA TODO POR HACER

Santiago Pagola Carte

Egiteko "asko" dagoela esatera nindoan baina... ez al dago "dena" egiteke? Bada, zintzo izateko, ez, hori esatea hainbat pertsonen urtetan zeharreko lana gutxiestea bailitzateke. Euskal Entomologiari falta zaio/zaigunaren ikuspuntutik, ordea, "asko" hori ia-ia "dena" da, infiniturantz hurbiltzen da eta. Azkenean, eta euroen zentimoe-kin bezala, biribildu eta "dena egiteke dago" utzi dut izenburutzat.

Lurrean bizi diren intsektu-espezieen kopurua 3 eta 30 miloi artean kalkulatzen da. Gaur egun, horietatik guztietatik milioi bat baino ez dira ezagutzen, hau da, bizidun ezagunen erdia baino gehiago. Batzuetan planetaren alde tropikaletako Bizitzaren dibertsitate itzela oztopo (aitzakia?) bihurtzen da babes-teko guneak aukeratzera... Guztiguztia kontserbatu beharko zen! Noski baietz, Bizitzak ez du mugarik onartzen eta, eremu jakin batzuen babes gaitz erdia izan badaiteke ere ("zatitxo hau behintzat babesten dugu..."), benetakoa arazoa da (gaitz osoa, beraz) geure espezieak (*Homo... sapiens?*) bere etxe bakarrean daukan moldatzeko era (etxea hondatuz)¹.

Eta, hala ere, gauzak hain garbi ikusten baditugu ere (eta hain zikin, ezkortasunak jota), entomologoak garen aldetik badaukagu gure eskuetan zertxobait egitea biodibertsitatearen galera gero

Iba a decir "mucho" y lo he dejado en "todo". ¿Queda todo por hacer? Estrictamente no, eso sería despreciar el trabajo de muchas personas a lo largo de muchos años. Pero desde el punto de vista de lo que aún le/nos falta a la Entomología vasca, el "mucho" es prácticamente "todo" porque tiende a infinito. O sea, que una vez hecho el redondeo, como con los céntimos de euro, lo dejo en "queda todo por hacer".

Se calcula entre 3 y 30 millones el número de especies de insectos que pueblan la Tierra. Actualmente se conocen algo menos de un millón, lo que supone más de la mitad de todas las especies vivientes conocidas. A veces la enorme diversidad de la vida en las zonas tropicales del planeta se convierte en obstáculo (¿en excusa?) para la elección de zonas a conservar... ¡Habría que conservar todo! Por supuesto, la Vida no admite barreras y, si bien la preservación de territorios concretos puede ser un mal menor ("por lo menos conservamos este cachito..."), no es menos cierto que lo que falla (o sea, el mal mayor) es el modo en el que nuestra especie (*Homo... sapiens?*) sigue empeñada en acomodarse en su única casa (destruyéndola)¹.

Y sin embargo, aunque veamos las cosas

eta handiagoa izan ez dadin... zer?: Bizitza deskribatzea², inbentariatzea³, bai eta amaigabeko eromen honi "adabakiak" proposatzea ere: adibidez, espezie sentikorrenak edota habitat m e h a - t x a t u e n a k antzemanen, "dagokionaren" eskue-tan neurri b a b e s l e n a h i z zuzentzaile-ak har daitezten. Horretan dihardu- t e n e n borondate ona ukaezina da, baina kontua da d i b e r t s i t a t e biologikoa- ren handitasunak

"jaten gaituela" eta aipaturiko "adabakiak" proposatzeko behar den ezaguer-a murriztua dela. "Adabakiak", nolahalako irtenbideak izateaz gain, hari lodiaz josi behar dira. Bi edo hiru kar-tarekin jokatzu, karta sorta osoa salbatu nahi izatearen sentsazioa geratzen zaio bati. (Benetan denok salbatu nahi dugun eztabaidatzera sartu gabe). Lehenengo ondorioa: gehiago ikertu behar da.

tan claras (y tan oscuras por el pesimismo), como entomólogos, lo mejor que podemos hacer es contribuir a que no se siga perdiendo biodiversidad... ¿cómo?: describiendo la Vida², inventariándola³ y

por supuesto proponiendo "parches" a la locura sin fin: estudiando cuáles son las especies más vulnerables, los hábitats más amenazados, etc., para que, en manos de "quien correspon-da", puedan tomarse ciertas medidas protectoras o correctoras. Pero es que, a pesar de la buena voluntad de quienes trabajan en todo ello, el asunto "se hace un poco bola" por la enorme diversidad biológica y porque es escaso el conocimiento básico para proponer los "par-

ches". Los "parches", ya de

por sí soluciones chapuceras para salir del paso, deben bordarse con hilo muy gordo. Se diría que, jugando con apenas dos o tres cartas, queremos salvar la baraja entera. (Todo ello sin entrar a discutir si realmente todos queremos salvarla). Deducción nº 1: hay que investigar más. Pues bien, NO SOLO es en los trópicos o en los lugares más inexplorados de la Tierra donde la Vida tiene una diversidad tan alta que, paradójicamente, nos difi-culta avanzar en su conservación. AQUÍ




Foto: S. Pagola Carré

Zenbait liburu interesgarri / Algunos libros interesantes


Bada, tropikoetan edota Lurraren esploratu gabeko toki urrutietan SOI-LIK EZ da gertatzen Bizitzak hain dibertsitate altua duela non, paradoxikoki, dibertsitate horrek beraxe bere kontserbazioan pausoak ematea zailtzen baitigun. HEMEN ERE BAI. Eta lerro hauen hasierarekin lotuz... Euskal Entomologian ia dena egiteke dago, zeren eta: (a) orain arte ia ezer ez baita egin (barakatuko didazue loari orduak lapurtzen urteak eta urteak daramatzazuenok...); (b) Euskal Herriak, tropikala ez bada ere (bartzuetan, eguraldia dela eta, baietz eman arren), entomodibertsitate ikaragarria gordetzen du, bere ezaugarriak dauzkan beste

edozein lurralde bezala. Gure ondoan bizi diren euli-, matxinsalto-, zimitz-, listor... espezieak zeintzuk diren ezezik, zenbat diren ere ideiarik ez daukagu. Ikertuen izan den intsektu-ordena ere, tximele-tena (Lepidoptera), beste ezezagun bat izatera iristen da mikrolepidopteroen mundura "jaitsiz" gero... Bukatu aurretik, hainbat galdera ezberdin: Zenbat espezie berri Zientziarako gordeko dituzte oraindik gure basoek, gure larreek, gure lezeek...? Noiz ohar-tuko da gizarte hau oinarrizko ikerkuntzan gehiago inbertitzearen (ez da

TAMBIÉN. Y es como enlace con el comienzo de estas líneas. En la Entomología vasca queda casi todo por hacer, porque: (a) hasta ahora se ha hecho casi nada (y perdonadme los que lleváis años robando horas al sueño...); (b) Euskal Herria, a pesar de no ser tropical (aunque a veces lo parezca por el tiempo), alberga, como cualquier territorio de sus características, una entomodiversidad sobrecogedora.

No sólo no sabemos cuáles son las especies de moscas, saltamontes, chinches, avispas... que viven junto a nosotros, sino que ni siquiera tenemos una idea de

cuántas son. Incluso el más estudiado de los órdenes de insectos, las mariposas (Lepidoptera), pasa a ser un verdadero desconocido cuando "bajamos" al mundo de los microlepidópteros... Antes de terminar, unas cuantas preguntas sueltas: ¿Cuántas especies nuevas para la Ciencia se esconderán aún en nuestros bosques, praderas, cuevas...? ¿Cuándo nos daremos cuenta, como sociedad, del inmen-



Edward O. Wilson-en "La diversidad de la vida" liburutik ateratako grafikoa.

zaila gehiago inbertitzea) mugagabeko onuraz? ...zeren eta oso oinarrizkoa baita jakitea zer dagoen gaztaren zatirik handienean (ikus irudia). Nolako lodiera dauka autobia, urtegi edota txalet-urbanizazio berri bakoitzeko irensten dugun gazta-puskak? ...zer edo zer jaten badugu horrelakoetan (hori ere ezin asmatu kasu gehiengotan). Hau guztia larria al da?

Bitartean, bigarren ondorioa: gehiago ikertu behar da, hemen ere bai, jakina! Badakizu...

so beneficio que acarrearía invertir más (no es difícil invertir más) en investigación básica, tan básica como saber qué hay en el trozo más grande del queso (ver figura)? ¿Qué grosor tiene la rebanada del queso que nos comemos con cada autovía, embalse, urbanización de chalets..., si es que nos la comemos (ni siquiera podemos saber eso en la mayoría de los casos)? ¿Es esto grave?

Mientras tanto, deducción nº 2: hay que investigar más, por supuesto que aquí también. ¡Ya sabes!

¹ "Moldatze" honi buruz, irakurri dudana libururik onenetako bat, irudiz ondo hornituta gainera, Arturo Valledor de Lozoya-rena da: La especie suicida - El peligroso rumbo de la humanidad (Ed. Díaz de Santos, 2000. urtea).

² "Bizitza deskribatzea" esatean, bizidun guztiak, gure kasuan intsektuak, aurkitu, sailkatu, beren ezaugarriak deskribatu etab. esan nahi da. Azken urteotan zenbait liburu argitaratu dira gaiari buruz, baina "bibliatza" jotzen dena da La diversidad de la vida, Edward O. Wilson-ena (gaztelaniazko itzulpena: Ed. Crítica, 1994. urtea). Bizitza deskribatzearen deskribapen ezin hobea da perla hau...

³ Inbentariatzea edo katalogatzea deskribatzearekin batera etorri ohi da. Espezie berriak deskribatzean, haien inbentarioa osatzu joan beharko litzateke... nahiz eta askotan informazioa hain zabala da eta hain sakabanatuta dago non deskribatze- eta inbentariatze-lanak munta berekoak baitira... Egia da, bestalde, ezer ez dela deskribatu behar talde taxonomiko baten lurralde jakin bateko katalogoa egin ahal izateko. Izan ere, Europako entomologo gehienengatikuz handiena horixe izaten da. Nabigatzaile ona ez banaiz ere, bi proiektu interesgarri eta hurbilen helbideetara bidaliko zaituztet, endredatzen ibili nahi baduzue:
<http://www.fauna-iberica.mncn.csic.es/>
eta <http://www.faunaeur.org/>.

¹ Sobre esta "acomodación", uno de los mejores libros que he leído, y muy bien ilustrado por cierto, es el de Arturo Valledor de Lozoya: La especie suicida - El peligroso rumbo de la humanidad (Ed. Díaz de Santos, año 2000).


² Con esto de describir la Vida se quiere decir encontrar, clasificar, describir cómo son, etc., todas las especies vivientes, en este caso insectos. En los últimos años se han ido publicando unos cuantos libros sobre el tema, pero la verdadera "biblia" sigue siendo La diversidad de la vida, de Edward O. Wilson (traducción al castellano en Ed. Crítica, año 1994). Esta joya es la mejor descripción de lo que es la descripción de la Vida...

³ Inventariar o catalogar viene de la mano de describir. Si se describen nuevas especies se deberían ir inventariando... aunque a veces hay tanta información dispersa que hay tanto por hacer en describir como en inventariar. También es verdad que no hace falta describir nada para poder hacer un inventario o catálogo de un determinado grupo taxonómico en un territorio. De hecho, ésta suele ser la gran labor de la mayoría de entomólogos europeos. Aunque no soy buen navegador, os remito a dos proyectos interesantes y muy próximos, para que enREDéis un poco:
<http://www.fauna-iberica.mncn.csic.es/>
y <http://www.faunaeur.org/>.

TXINDURRIAK AGINTERA! ¡HORMIGAS AL PODER! Mónica Menéndez


Txindurriak himenopteroak dira, hau da, erle eta liztorren lehengusu-lehengusinak eta Artropodoen Filokoak direnez, ganba, karramarro eta otarrainen urrutiko senideak ere badira. Izan ere, horiek guztiek (otarraina, liztorra, txindurria...) kanpotik darimate hezurdura edo eskeletoa eta ez daukate gure antzeko bizkar hezurrik. Euren hezurdura kanpoko aldean daukaten oskol gogor horixe da.

Hori esan ondoren, has gaitzen gure auzokideak apur bat gehiago ezagutzen. Txindurriak izaki sozialak dira, ezingo lirarteke bakarrik bizi (hori Txindurria eta Txixarraren ipuinean baino ez da gertatzen). Ia urte osoa lanean ematen dute neguan bizirik iraun ahal izateko, gero, urte sasoi horretan txindurritegiko ateak ixten dituzte hotzik ez pasatzeko eta ez dira udaberriara arte ateratzen. Elikadura espezie batetik bestera aldatzen da: batzuk haragijaleak dira eta mamorroak jaten dituzte (beldarrak harrapatu eta zatitxoka jateko gai dira), beste batzuek frutak, aleak eta haziak jan ohi dituzte, beste zenbait txindurrik ostoen zatitxoak hartu eta txindurritegira eramaten dituzte eurretatik sortutako ondoak jateko eta badira loreen nektarra jan ohi dutenak ere. Baina, zalantzarik gabe, gehien-gehien gustatzen zaiena landare-zorri edo pulgoiek ostoen gainean isurtzen duten zuku gozoa da. Hori izugarri gustatzen zaiel! Horrexegatik landare-zorriak harrapatu eta zukua ateratzen diete egunero, gero, negurako g o r d e t z e k o . Batzuetan kiloak eta kiloak pilatzen



Las hormigas son unos insectos himenópteros, es decir, primas de avispas y abejas, y por pertenecer al Filo de los Artrópodos se puede decir que son parientes lejanas de la gamba, el cangrejo o la langosta; esto se debe a que todos ellos (langosta, avispa, hormiga...) tienen un esqueleto externo, ninguno de ellos tiene una columna vertebral como la nuestra sino que su esqueleto está formado por la coraza dura que les rodea.

Dicho esto vamos a profundizar



un poco más en estas vecinas nuestras. Las hormigas son insectos con una gran vida social, ninguna sería capaz de vivir sola (como en el cuento de La Cigarra y la Hormiga). Se pasan gran parte del año recolectando alimentos para poder sobrevivir durante el invierno, ya que en esa época cierran las puertas del hormiguero para no pasar frío y no salen hasta la primavera. Su alimentación es variada dependiendo de la especie: algunas son carnívoras y se comen a otros insectos (son capaces de capturar una oruga para comérsela a trocitos), otras se alimentan de fruta, granos o semillas, algunas hormigas cortan trozos de hojas y los llevan al hormiguero para cultivar hongos que después se comerán, y otras se alimentan de néctar de plantas. Pero lo que más les gusta sin lugar a dudas es el jugo azucarado que los pulgones segregan sobre las plantas, ¡Les gusta muchísimo! Debido a esto, secuestran pulgones y cada día les "ordeñan" para sacarles ese jugo, que

dituzte.

Txindurritegiak argi gutxiko edo argirik gabeko leketan egiten dituzte, egurrean nahiz lurtean zulatuz egin ere. Baita zuhaitzen azalaren azpiko tarreak edota harri bitarreak aprobetxatuta ere. Espeziearen arabera, kolonia batzuek erregina bakarra izan ohi dute, esate baterako, basoetako txindurri gorriaren (*Formica rufa*) edo txindurri beltzaren kasuan (*Lasius niger*). Beste batzuek erregina bat baino gehiago izaten dituzte, adibidez, ezteundun txindurriaren kasuan (*Myrmica rubida*) txindurri honek, gainera, oso ziztada mintzua eragiten du.

Udaberri eta udazken aldean txindurri hegodun ugari ikusi ahal izaten dugu, arrak eta emeak (erreginak izango direnak) dira. Orduantxe gertatzen da estalketa eta, hori, bizitzan behin baino ez dute egiten. Ondoren, arrak hil egiten dira eta emeek txindurritegia egingo dute. Horretarako, erregina berriak, onartuko duten txindurritegi bat aurkitu beharko du eta beste erregina bat edo batzuekin bizi beharko da edota, bestela, txindurritegi batean sartu, bertako erregina hil eta hantxe geldituko da. Kasu horretan txindurri langileak ez dira, inola ere, aurka egiten ausartuko eta denaren jabe geldituko da. Txindurritegian kasta edo klaseak egon ohi dira:

- **Erregina.** Bere eginkizuna arrautzak errutea izaten da. Hegoak ditu jaiotzen denean, baina inurritegian kokatu ondoren galtzen ditu. Ugalkorrek izaten dira.

- **Arrak.** Hauek ere hegodunak izaten dira eta euren eginkizun bakarra emea estaltzea izan ohi da.

- **Langileak.** Eme antzuak dira, hau da, ezin dute kumerik sortu. Horren errua erreginak isurtzen duen hormona batek dauka. Hormona horrek antzututa uzten ditu eta, horrela, ezin diote konpetentziarik egin erreginari.

- **Soldadua.** Ez datoz bat aditu guztiak, baina zenbait espezieetan, behintzat, badira langile batzuk oso buru handikoak eta barailla (mandibula) sendoak dituztenak,

luego guardan para el invierno, llegando a acumular incluso kilos y kilos.

Los hormigueros son fabricados en lugares con poca o ninguna iluminación, pueden ser excavados en tierra o madera, o aprovechando huecos bajo cortezas de árboles o rocas. Según la especie, la colonia puede estar formada por una sola reina, como es el caso de la hormiga roja de los bosques (*Formica rufa*) o la hormiga negra (*Lasius niger*), o por varias reinas, como en la hormiga con agujijón (*Myrmica rubida*) esta hormiga, además, produce una picadura muy dolorosa.


Durante la primavera o el otoño podemos ver gran cantidad de hormigas voladoras, son hembras (futuras reinas) y machos. Es cuando se produce el apareamiento, el cual realizan una sola vez en la vida; luego los machos morirán y las hembras formarán un hormiguero. Para esto la joven reina puede unirse a un hormiguero donde permitan tener varias reinas, o bien meterse en un hormiguero, buscar y matar a la reina y quedarse ella con todo, en este último caso ninguna de las hormigas obreras se atrevería a desobedecer a la nueva reina. En el hormiguero existen castas o clases:

- **La reina,** cuya misión es poner huevos, nace con alas y las pierde cuando se establece en su hormiguero definitivo, las reinas son fértiles, es decir, pueden tener crías;

- **Los machos,** cuya única misión es aparearse con la hembra, y también tienen alas;


- **Las obreras,** son hembras estériles, es decir, no pueden tener crías, esto se debe a que la reina produce unas hormonas que al entrar en contacto con las obreras les impide tener descendencia, de esta forma la reina se asegura de que ninguna otra le haga competencia;

- **Los soldados,** no todos los autores coinciden en afirmar su existencia, pero sí se puede confirmar la existencia, en algunas especies, de ciertas hormigas obreras



haziak birrintzeko modukoak. Txindurriek eskulana behar dutenean bi jokabide dituzte. Batzuek beste espezie batzuetako langileak onartzen dituzte euren txindurritegietan, erregina eta larbak zaintzeko. Gertatu izan da, ordea, apopilo hartutako txindurri horiek gustura ez egotea eta erregina hil eta ordezko bat ipiniz, txindurritegiaren jabe egitea. Beste batzuetan, langile gehiagoren beharra dutenean edo langilerik gabe daudenean, beste txindurritegi batzuetako langileak harrapatu eta esklabutzat hartzen dituzte, eurentzat lan egin dezaten.

Txindurri batzuek defentsa sistemak dituzte, esate baterako, eztenak edo sabelaldetik jaurtikitzen duten azidoa. Indarra ere ikaragarria dute, izan ere, euren pisua halako hamar altxatu eta inurritegira eramateko gai dira. Gizonaren tamainakoak balira, gai izango lirateke auto bat buru gainera jaso eta hiriarne beste aldera eramateko. Kontu handiagoa izan beharko dugu berorriekin!



con cabeza muy grande y mandíbulas también grandes, capaces de triturar semillas.

Cuando las hormigas necesitan mano de obra lo hacen de dos formas distintas. Algunas de ellas acogen en su hormiguero a obreras de otras especies para que cuiden de sus larvas y de su reina, pero a veces las hormigas huésped, no contentas con la situación, acaban asesinando y suplantando a la reina, adueñándose así del hormiguero. Otras veces, cuando necesitan ayuda porque hay pocas obreras o incluso no tienen, capturan obreras de otros hormigueros y las tienen como esclavas trabajando para ellas.

Algunas hormigas tienen sistemas de defensa como agujones o un ácido que expulsan por la parte posterior del abdomen; y tienen una gran fuerza, ya que son capaces de levantar 10 veces su peso y llevarlo hasta el hormiguero. Si fueran tan grandes como un hombre, serían capaces de coger un coche en brazos sobre sus cabezas y llevarlo hasta la otra punta de la ciudad.

¡Habrá que tener más cuidado con ellas!

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:




kutxa

zuri esker
gracias a ti




INTSEKTUEKIN JOLASEAN JUGANDO CON INSECTOS

Faustino Uranga



Zimitz hauek matematikak gustoko dituzte, hori dela eta erronka bat botatzen dizuete; hau da, zimitz bat bakarra mugituz 130 zenbakia lortu behar duzue.



A estos chinches les gustan las matemáticas, por ello te retan a que moviendo solamente un chinche resulte 130.



Txindurri hau hesiz osatutako labirintu honek dituen lau sarreretako batetik sartzera doa, eta bertako kale guztiak zeharkatu nahi ditu baina bi aldiz zati beretik pasa gabe (naiz eta txandaren batean bidegurutzeren bat errepikatu behar). Bestalde, sartutako leku beretik ez da irtengo. Nola egingo ote du?

Esta hormiga va a entrar en este laberinto formado por setos por una de las cuatro entradas posibles, y pretende recorrer todas sus calles sin pasar dos veces por el mismo tramo (aunque en alguna ocasión sí por el mismo punto). Además no saldrá por donde entra. ¿Cómo lo va a hacer?

Aurreko zenbakiko erantzunak/ Respuestas al número anterior:




**LA SALIVA
DE UNA
ESPECIE DE
CHINCHE ASESINA
LA PLATYMERIS
BIGUTTATA, TIENE
TAL TOXICIDAD
QUE PUEDE
CAUSAR CEGUERA
TEMPORAL
EN UNA PERSONA**



Se estima que la malaria, una enfermedad transmitida por el mosquito Anopheles, mata a un ser humano cada 12 segundos.


Un solo pollo de golondrina puede consumir unos 2000000 escarabajos, chinches y moscas antes de que le salgan las plumas.



Los cerdos son de los pocos animales inmunes al veneno de los escorpiones, se los comen tranquilamente sin ningún problema

EUSKARA

Zure unibertsoan



www.gipuzkoa.net/kultura

Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirol Departamentua
Departamento de Cultura, Euskera, Juventud y Deportes



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa